

PROPOSAMENAREN JARRAIPEN FITXA

○ AURREKONTUAREN URTEA:

2015

○ PROPOSAMENA:

Herriko haur parkeren bat estaltzea

○ EGOERAREN AZALPENA:

Hernani Erabaki parte-hartze prozesuaren lehenengo urtean, 2014an, hernaniarrek erabaki zuten haur parke bat estaltzea.

Ondoren, Udalak ideia-lehiaketa bat antolatu zuen proiektu hori nola egingo zen erabakitzeko.

Epaimahai batek bi proiektu lehenetsi zituen, eta Herritarrek bi proposamenen artean bozkatzeko aukera izan dute:

"...gailur guztien oinarritzko kanpamendu" egitasmoaren alde egin dute gehienek.

Beraz, herritarrek hala erabakita, "...gailur guztien oinarritzko kanpamendu" egitasmoa gauzatu da.

Hernaniarrek aukeratutako proiektua 219.995,68 euroko aurrekontua du (haur parkea estaltzeak 115.450,16 euro eta 104.545,52 euro inguruneko aktuazioak). Erabaki Hernani 2015 parte-hartze prozesuan 120.000 euroko aurrekontua ezarri zen. 2016an, ostera, Udalak 260.000ra igo zuen aurrekontua, estalkia egiteko, proiektuen idazketa eta bestelako gastuak kontuan hartuta.

Obrak amaitu egin dira 2019ko abenduan bukatu zen obra 2020ko otsailaren 1ean parkearen izenaren aldaketa eta inagurazioa egin zen.



PROPOSAMENAREN JARRAIPEN FITXA

○ SAIL ARDURADUNA:

HIRIGINTZA

○ GARATU DEN EPEA:

○ AURREIKUSITAKO GASTUA:

120000
